

## **5. Kanalak**

Kanal desberdinen bitartez, gure proiektua merkatu-segmentu denetara iristea nahi dugu, gure balio-proposamena denei helarazteko. Hauek izango dira erabiliko ditugun kanal desberdinak:

Makinen enpresekin bilerak, zuzenekoa: gure produktua ekoizten duten enpresekin bilerak edukiko ditugu, makinaren prezioari buruz hitz egiteko batez ere. Bertan erabakiko dira makinaren diseinuari buruzko hainbat gauza.

Hitzaldiak: Eskoletara eta beste hainbat erakunde publikoetara joango gara hitzaldiak ematera gure produktuaren erabilera sustatzeko. Bertan gure produktuak inguruneari ekarriko dioen onurari buruz hitz egingo dugu.

Kartelak-Foiletoak: Promozio moduan herrian zehar kartelak eta foiletoak jarriko ditugu gure makinaren kokapena adierazten. Horrela gure produktua erabili nahi dutenek non dagoen jakingo dute.

Udalarekin bilerak: Herrietako udalekin bilduko gara diru laguntzak edo finantzazioa lortzeko. Gure produktuaren ingurunearekiko onurak, udalari irudi ona emango dio biztanleekiko.

Diputazioarekin bilerak: Bilerak egingo ditugu diputazioarekin Gipuzkoa mailan gure produktua zabaltzeko eta honen antolakuntza jenerala adosteko.